

BAKUN Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuaren zuzenketa prozesua

JOSEBA OSSA

1) BAKUNek eskaintzen dituen zerbitzuen ezaugarri orokorrak

BAKUN ez da itzulpen zerbitzu soila. Izan ere, bestelako argitalpen zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditugu (maketazioa, edizioa, zuzenketa, testuen sorkuntza eta abar). Beraz, itzultzeaz gain, testu ugari moldatu, editatu eta zuzentzen ditugu.

Talde lana

Bulegoan bertan 25-28 profesional aritzen gara elkarrekin lanean: 20 bat lagun itzultzen, eta beste zazpi inguru, zuzenketa eta koordinazio lanetan. Beraz, lan gehienak elkarlanean egiten ditugu, ondoz ondo lan egiteak dakartzan abantaila eta onurek bulztatuta.

Dena den, etxetik aritzen direnekin ere harremanetan gaude etengabe: telefonoz, emailez... Izan ere, badakigu oso garrantzitsua dela komunikazio ona eta ugaria izatea

bai itzultzaileen artean, bai itzultzaileen eta zuzentzaileen artean; besteak beste, lan bat elkarlanean egin behar denean, irizpideak, terminologia eta abar bateratzeko, eta barka dihardugunean, lankideei zalantzak galdetzeko, elkarri laguntzeko...

Horrela, ez bairik gabe, azken emaitza hobea izango da (bateratua, inkoherentziarik gabea, duda-mudazko pasarte edo esaldirik gabea...), eta gainera, itzultzaileen eta zuzentzaileen arteko komunikazioari esker, itzulitakoak nahiz zuzendutakoak elkarri kuestionatzeko aukera dagoenez, gaizki ulertuak zuzendu eta lana aberastu egiten da. Hizkuntza kontuetan ez dago zientzia erabat zehatzik, eta maiz, bi eragileen arteko elkarriketatik ateratzen da irtenbiderik egokiena.

Lan mota nagusiak

Nolabait esateko, bi lan arlo nagusi ditugu gurean. Batetik, PCetan Word for-

matuan egiten diren ohiko itzulpen lanak ditugu (testu tekniko eta industrialak, administraziokoak, dibulgaziokoak, etab.); lan horiek itzulpen memoriak baliatuz itzultzen ditugu, testuen koherentzia ziurtatu, epeak laburtu eta kalitateak hobera egin dezan. Bestetik, Macintoshetan maketazio programetan zuzenean egiten diren lanak ditugu: ikasmaterialak, jatorrizko hizkuntzan jadanik maketatuta datozen liburuak eta abar.

Eta garrantzitsua iruditu zaigu bi lan mota horiek aipatzea, lan mota bakoitzak bere berezitasunak baititu zuzenketa lanak egiteko orduan, aurrerago azalduko dugun bezala.

2) Zuzenketa lanaren arduradunak

Zuzentzaile talde profesional bat izatea oso onuragarria bada ere, badu arrisku bat: itzultzaileak gehiegi erlaxatzea, eta azken zuzenketaren ardura zuzentzaileen esku uztea. Horregatik, BAKUNen, hasiera-hasieratik zehaztu nahi izan dugu zein diren zuzenketa lanaren arduradunak, bai eta bakoitzak zer ardura dituen ere.

Itzultzailea bera

BAKUNen argi daukagu lanaren kalitate orokorraren ardura lehenik itzultzailearena berarena dela, eta, beraz, baita itzulpenen zuzentasunaren ardura ere.

Horrenbestez, itzultzaile bakoitzari eskatzen diogu ez dezan zuzentzailearen gainean utzi erantzukizun hori, eta paperean zuzendu dezan berak sortutako testua, urrats hauei jarraiki:

- 1.- Autozuzenketak leku lasai eta isil batean egin behar dira: zuzenketa gela horretarako dago.
- 2.- Lana entregatu baino lehen, norberak paperean zuzendu behar du itzulpena, zenbait puntu kontuan izanik:
 - Itzulpena originalari leiala al zaio? Datu guztiak (kopuruak, datak...) originalean bezala eman al ditut?
 - Estilo aldetik, egokia eta ulergarria al da?
 - Gramatika eta terminologia aldetik, zuzen al dago?
 - Ortografia aldetik, zuzena al da? (Xuxen ondo erabili!)
 - Jarraitu al diet aldeztu aurretik adierazitako irizpideei (EIMArenek, IZOrenak, BAKUNeko estilo liburuak, bezeroaren eskaerak...)?
 - Hartu al ditut kontuan beste lanetan orain arte egin zaizkidan zuzenketak?
 - Dena ondo ulertu al dut? Ez al dut inolako zalantzarik?
 - Beste xehetasun garrantzitsu batzuk: maketa kontuak, akats ortotipografikoak (espazio bikoitz/hirukoitzak, letra larri eta xeheak, marrak, marra txoak, parentesiak, bi puntuak...) eta abar.
- 3.- Testu originalak (paperekoak) eman behar dizkio zuzentzaileari.
- 4.- Zuzentzaileak egindako zuzenketak norberaren koadernoan idatzi eta kontuan izango ditu hurrengo lanetarako. Zuzendutako lana, paperekoa, artxibatu egingo du, ordena kronologikoan, inoiz kontsultak egin ahal izateko.

5.- Zuzenketaren batekin ados ez badago, zuzentzaileari adierazi behar dio.

Zuzentzailea

Gure itzultzaile guztiak eskarmentukoak eta ongi prestatuak izatea da kalitatearen oinarria. Hala ere, jakina da itzultzaile onenek ere akatsak eta hanka sartzeak egin ditzaketela. Horrenbestez, itzulpen guztiak (salbuespen batzuk gorabehera) zuzentzaile baten begi zorrotzek berrikusten dituzte bezeroari bidali aurretik.

Itzultzaileak bere lana itzultzean erabilitako irizpide horiek berak hartu beharko ditu kontuan zuzentzaileak ere, eta horrez gain, kontu handiz ibili beharko du zuzenketa bakoitza egitean, elementu bat aldatzeak besteren bat ere aldatu beharra ote dakarren ongi erreparatuta. Izan ere, askotan gertatu da okerren bat zuzendu nahi izateagatik azken emaitza hasierakoa baino okerragoa izatea, behin zuzenketa hori egitean esaldia berriro irakurri ez delako.

Horrenbestez, kontuan hartu behar da arreta handia behar dela itzultzean, handiagoa itzulitakoa paperean zuzentzean, eta are handiagoa papereko zuzenketak hasierako itzulpenean sartzean.

3) Zuzenketa prozedura orokorra

Honako protokolo orokor hau dugu BAKUNen:

Zuzentzaileak paperean zuzentzen eta orrazten du testua, originalean itzultzaileak berak sartu ditzan zuzenketak. Eta itzulpen lan bakoitza zuzendu ondoren, lan orri bat betetzen du. Hor, itzulpenaren balorazio bat

egiten du (zuzentasuna, ulergarritasuna, testuaren egokitasuna eta abar aipatzen ditu); horrez gainera, lanaren bolumena (hitz kopurua), zuzentzen emandako denbora eta adierazgarriak iruditzen zaizkion bestelako ohar batzuk ere jasotzen ditu lan orrian, zuzendariak lan orri hori jaso eta aztertzean kontuan hartzeko.

Ondoren, zuzendutako lana eta betetako lan orria itzultzaileari eman, eta akats nabarmenenak azaltzen dizkio, hurrengo itzulpen lanetarako kontuan har ditzan.

Aipatu beharra dago itzultzaileak lana etxetik egiten duenean zuzentzaileak pantailan zuzentzen duela itzulpena, ezinbestean. Halakoetan, zuzendutako lana eta hasierako itzulpena konparatzeko eskatzen zaio itzultzaileari, bulegoan bertan ari direnek bezala jokatu ahal izan dezan.

Itzultzaileak lan orri hori jasotzen du, zuzenketekin batera, bertan adierazitakoak kontuan har ditzan, eta beharrezkoa izanez gero, bere lan koadernoan jaso ditzan oharak eta zuzenketak.

Zuzenketaren batekin ados ez badago, edo zerbait ulertzen ez badu, zuzentzaileari adierazi behar dio. Hori funtsezkoa da, batetik, gerta daitekeelako zuzentzaileak hanka sartu izana, eta auzia argitzeko elkarrekin aztertu beharko dutelako, eta bestetik, itzultzaileak bere akatsen funtsa ulertu behar duelako, hurrengo lanetan akats bera ez egiteko.

Originalean zuzenketak sartu ondoren, lana eta lan orria idazkariari ematen dizkio, gordeta gera daitezen.

Koordinatzaile nagusiak, azkenik, itzultzaile bakoitzaren lan orri guztiak bil-

tzen ditu eta hilean behin zuzendariari ematen dizkio, hark azter ditzan, langile bakoitzaren emaitzen balorazioa egin ahal izateko, eta balizko arazoak garaiz detektatu eta konponbidean jartzeko.

4) Zuzenketa prozedura espezifikoak

Aipatu dugu BAKUNen bi lan arlo nagusi bereizten ditugula eta lan mota bakoitzak bere berezitasunak dituela, hala itzul-tzean nola zuzentzean.

Zuzenketa prozedura Windows formatuetan (Word, Wordfast...)

Teknologia berriek eragin handia dute zuzenketa lanean. Gaur egun ez da nahikoa paperean lan egiteko gai izatea; itzulpen memoriak eskaintzen dituzten abantailak baliatzeak erronka berriak dakarzkie itzultzailei eta zuzentzaileei.

Gure eguneroko lanean, ahal den gutxietan erabiltzen ditugu itzulpen memoriak; beraz, memorien laguntzaz egindako itzulpenak zuzentzeko alderdi batzuk nabarmendu behar ditugu.

Lehenik eta behin, erabili den memoria behar bezala kudeatu den ikusi behar da. Oro har, hobe da beste memoria bat hutsetik sortzea, memoria txar bat gaizki erabiltzea baino.

Memoriek zuzendu gabeko bertsioren testu zatiak izan ditzakete; hau da, esaldi baten ordain bat baino gehiago eman ditzakete. Egoera hori suertatzen bazaio itzultzaileari edo zuzentzaileari, itzulpen egokiena hautatu behar du. Aukeren artean egokirik ez bada, zuzendu egin behar du memoriak

emandako esaldia, eta hura oso desegokia bada, berriatzi.

Memoriek terminologiaren koherentzian sor ditzaketen arazoak konpontzeko, glosarioak osatzea komeni da. Zuzentzaileentzat ez da harrigarria izaten testuaren luze-laburrean euskarazko bi hitz edo gehiago ikustea jatorrizko hizkuntzako termino baten ordain gisa. Zilegi da sinonimoak erabiltzea, baina, oro har, testuaren koherentzia eta zehaztasuna zaintzeko, terminologia glosarioak osatu eta bateratzea komeni zaio zuzentzaileari. Gainera, glosarioen bidez, jakintza alor bakoitzari buruzko oinarritzko ezagutzak helaraz dakizkieke alor horietan trebatu gabeko itzultzaileei, terminoen definizioak erakusteko aukera ematen baitute gaur egungo itzulpen tresnek.

Urtez urte egiten diren txostenak itzuli badira memoriaren laguntzaz, datak eta zerbakiak behar bezala ekarri direla ziurtatu behar du lehenik zuzentzaileak. Esaldia bikain-bikaina izan daiteke estiloaren, gramatikaren, sintaxiaren edo ortografiaren aldetik, baina beste urteren bateko txosten bati dagokion dataren edo kopururen bat adierazten badu, itzulpena akastuna izango da, oso akastuna.

Zuzenketa prozedura Mac formatuetan (InDesign, QuarkXpress...)

Macintoshetan lan egitearen arrazoi nagusia maketazio programak erabiltzea izan ohienez, ezinbestekoa da halakoetan egindako itzulpenak zuzentzean formatu kontuei arreta handiz erreparatzea: testua falta den edo sobera dagoen, koloreak bere lekuan dauden, paragrafoetan lerro alargun

edo umezurtzik dagoen, marjinak ondo dauden...

Bestalde, Mac-etako lan gehienak ikas-materialak izan ohi direnez, funtsezkoa da itzultzaile eta zuzentzaile guztiak lan mota horietarako gomendio eta irizpide berrien jakinaren gainean egotea. Horretan ere, ezinbestekoa da etengabeko prestakuntza.

Besteak beste, alderdi hauek zaindu behar ditugu:

- Aldian behin Euskaltzaindiaren arau berririk agertu den begiratu behar da Interneten.
- EIMAREN estilo liburuko argitalpenak irakurri/kontsultatu behar dira (esku-ragarri ditugu bai Interneten bai pape-rean).
- EIMAK lan bakoitzeko bidalitako zuzenketa guztien berri izan behar dugu. Horretarako, zuzenketak jaso ahala, lanaren koordinatzaileak zuzenean adierazten dizkie lan hori itzuli eta zuzendu dutenei, eta horrez gainera, barruko zerbitzarian ere jartzen ditu, gainerako langileek ikus ditzaten.

Urrats horiek guztiak ondo emanda ere, ez da gauza arraroa testu onenetan arazoak ikustea. Zoritxarrez, sarri gertatzen da ondo

itzulitako testu batek, inprimategitik ateratzean edota Interneten argitaratzean, oker nabarmenak izatea. Maiz ez da itzultzailearen errua izaten, tartean parte hartzen dutenena baizik.

Beraz, tarteko horien esku hartzeak direla-eta testua *oker* ez dadin, BAKUNek aukerara eskaintzen ditu diseinu, maketazio eta aurreinprimaketa zerbitzuak. Izan ere, horrela, testua fase bakoitzean zuzentzailearen eskuetatik igaroko denez, arriskuak minimizatu egiten dira.

Lan horiek guk egiten ez baditugu, fase bakoitzaren zuzenketa eta kontrol zerbitzua eskaintzen dugu, bezeroak hala nahi izanez gero, **kalitatea azken bururaino zaintzea baita gure helburua.**

5) Azken gogoetak

Amaitzeko, gure lanari buruzko zenbait galdera bota nahi ditugu hemen, profesional guztien gogoeta eragiteko.

Zuzentzaileak, noiz arte? Beti behar al du orrazketa itzulpen lanak?

Berdin jokatzeko al dute beste hizkuntzetako itzultzaile eta zuzentzaileak? Ba al du eraginik euskaraz aritzeak?

Ez al dago itzultzaile erabat fidagarririk?

Proceso de corrección en una agencia de traducción: el caso de Bakun

El artículo expone el procedimiento que sigue una agencia de traducción de cierta entidad y tamaño del País Vasco a la hora de corregir –específicamente en euskera– los textos de los encargos de traducción que recibe: personas responsables de la corrección, procedimiento general de traducción, coordinación, procedimientos específicos en función de diversas variables, etc. Finalmente, realiza una reflexión en forma de preguntas abiertas sobre la aparente inevitabilidad intrínseca del proceso de corrección dentro de la labor traductora.

Le processus de correction dans l'agence de traduction Bakun

Cet article explique la méthode employée par une importante agence de traduction du Pays Basque pour corriger des textes qui lui sont soumis afin d'être traduits vers l'euskara. Il précise le nombre de personnes responsables de la correction, les règles générales de traduction, la coordination, les procédés spécifiques en fonction des différentes variables, etc. Pour finir, il pose un certain nombre de questions générales d'où l'on déduit que le travail de traduction comporte inévitablement un travail de correction.

The Process of Correction in the Bakun Translation Agency

This article discusses the procedures followed by translation agency Bakun, a substantial institution in the Basque Country, for editing the texts it receives to translate into Basque: those responsible for editing, standard translation procedures, coordination, specific procedures for various aspects of translation, etc. Finally, it examines in the form of open questions the apparently intrinsic inevitability of the editing process as a part of the task of translating.



